

**GIZARTE ZERBITZUAK**

GAIA	EGINDA	PROZESUAN	EGITEKO
<p>ZAHARREN EGOITZA</p> <p>Zaharren egoitzako azpiegiturak hobetu</p> <p>Egoitza mantendu eta hobetu</p> <p>Egoitzako zerbitzuak osatu: psikologoa, fisioterapeuta, aisialdiko terapeuta gehiago...</p> <p>Egoitza zerbitzua herrian eduki</p>	<p>Eskumena Egoitzako Patronatuko Juntarena da.</p> <p>Irisgarritasun obrak egin dira 41/98 Dekretura egokitzeko: igogailu bat instalatu da eta larrialdietarako barruko eskailera bat jarri da.</p> <p>Obra horiek finantzatzeko hitzarmen bat sinatu du egoitzak udalarekin. 8000 €-ko diru laguntza jasoko dute.</p> <p>Aldundiak dekretu bidez definituak dituen ratioak betetzen dira.</p> <p>Psikologa bat dago kontratatuta eta aisialdiko terapeuta lanak ere bere gain daude.</p> <p>Fisioterapeutarik ez dago, bai ordea tresneria.</p> <p>Udaleko gizarte langileak egoitzako erabiltzaileen jarraipena egiten du, besteak beste.</p> <p>Egoitza zerbitzua mantentzen da.</p> <p>Eskaerak udaletik tramitatzen dira.</p> <p>HUHEZIk ikasleek parte hartu dute boluntario lanetan (2013) .</p>	<p>Gela berriak egokitzen ari dira, besteak beste 41/98 Dekretura egokitzeko.</p> <p>Aldundiak urtero ikuskatzen du egoitzaren funtzionamendua eta betebeharrak egokiak diren.</p>	<p>Beste hobekuntza batzuk: jan-gela egokitu...</p>

<p>Herria zaharren egoitzara gerturatu, ekimenak bertan antolatuz.</p> <p>Herriko partaidetza bultzatu, ekintza kulturalak eta ludikoak bertara eramateko.</p> <p>Boluntariotza sustatu</p> <p>Egoitzako ortuen berri eman</p>	<p>Udaleko Kirol arloak bertan antolatu ditu Osasun Asteko ekimen batzuk (2013-2014)</p> <p>Chiapasen aldeko taldeko arduradunak bertara eraman ditu ekimen kultural batzuk.</p> <p>2014ko irailean III. garagardo festa izan da egoitzarako dirua biltzeko.</p> <p>Nagusilan, jubilatu boluntarioen elkartearekin harremanak izan dira, bertara hurbildu daitezten.</p> <p>Erabiltzaile boluntarioak daude.</p>		

<p>EGUNEKO ZENTROA</p> <p>Zerbitzua mantendu egokia delako.</p> <p>Zerbitzua hobetu.</p>	<p>Zerbitzua martxan dago eta jarraituko du. Eskaerak udalean tramitatzen dira.</p> <p>Dagoeneko eskaintzen da oporretako zerbitzua, baina astebukaeretan eta jai egunetan itxita egoten da zerbitzua. Dena den, lekua izanez gero, aukera dago Arrasateko Eguneko Zentrora joateko bai jai egunetan bai astebukaeretan. Horretarako, ibilgailu zerbitzua dago.</p>		<p>Ez da Udalaren eskumenekoa, baina Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak eskaera bideratuko du Aita-Mennira, asteburuetan eta jai egunetan ere zerbitzua herrian bertan eman dezaten.</p>
<p>ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA</p> <p>Zerbitzua mantendu eta gehitu.</p>	<p>Zerbitzua udalaren eskumenekoa da eta ematen jarraituko da. Une honetan Gizadi enpresaren bitartez ematen da.</p> <p>Eskaerak udalean tramitatzen dira. Momentuz, baldintzak betetzen dituzten eskaera guztiak onartzen dira. Onuradunek dituzten diru sarreren arabera ordaintzen dute zerbitzua. Zerbitzuaren iraupena beharraren arabera izaten da, eta gehienez 4 ordu egunean.</p>	<p>Gizadi enpresak udalarekin duen kontratua abenduan bukatzen da. Hori kontuan izanda, EEL Zerbitzuaren kontratua lehiaketa bidez esleitzeko prozedura martxan da.</p>	
<p>EPA ZERBITZUA</p> <p>EPA zerbitzua sustatu</p>	<p>Hezkuntza teknikariarekin hitz egin da, gaia euren arlotik bideratzeko.</p>		

<p>OSASUN ZENTRUA</p> <p>Ordutegia zabaldu (arratsaldeetara)</p> <p>Asteburuetako eskaintza</p> <p>Pediatra egun gehiagotan egotea</p>	<p>Osasun Zentroan konfirmatu digute pediatra egunero dagoela.</p>		<p>Ez da udalaren eskumenekoa. Gizarte Zerbitzuetako Batzordetik eskaera bideratuko da OSI, Osakidetzako organura</p>
<p>EMAKUMEA</p> <p>Emakumeentzako puntu beltzen mapa osatu eta segurtasuna bermatu.</p>	<p>Clara Campoamor elkarteak lan hitzarmena sinatu du udalarekin bi zerbitzu hauek eskaintzeko:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Laguntza sozio-juridikoa ematea tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei</li> <li>2. Tratu txar egoeretan jarraitu beharreko protokoloa diseinatzea.</li> </ol>	<p>Tratu txar egoeretan jarraitu beharreko protokoloaren aurrerapena dagoeneko eginda dago, eta behin betiko dokumentua 2015eko martxorako egongo da</p>	<p>Puntu beltzen mapa egiteke dago, ez zaiolako lehentasuna eman.</p>
<p>ATZERRITARRAK</p> <p>Etorkinen integrazioa hobetu.</p>	<p>HUHEZIKo ikasle baten laguntzaz emakume talde bat sortu zen hizkuntza eta integrazioa lantzeko (2013) .</p> <p>Euskara zerbitzuarekin elkarlanean, AUZOKO programa jarri da martxan (2013-2014) .</p> <p>Auzokide eta auzotarren artean elkarbizitza euskaraz sustatzeko eta bide-batez integrazioa lantzeko taldea da.</p>		

<p>EZGAITUAK</p> <p>Ezgaituentzat zerbitzuak hobetu.</p>	<p>ASPACEk Garuneko Paralisia duten ikasleentzat Bergaran zuen gela egonkorra Luis Ezeizara pasatu du irailean, eskolaren eta udalaren oniritziaz.</p>		<p>Ezgaituen aldetik eskaerarik jaso ez denez, dauden zerbitzuekin jarraitu da.</p>
<p>LANGABETUAK</p> <p>Herri lanetarako herriko langabeak kontratatu</p> <p>Laguntza sozialak jasotzen dituzten pertsonak herriko beharrei erantzunez parte hartzea.</p>	<p>Herriko hainbat pertsona kontratatu dira brigadan lan egiteko (LANBIDE)</p> <p>Aurten brigadakoez gain administrari bat eta IKT arduradun bat (Informatikan, komunikazioan eta Teknologien arduraduna) kontratatu dira.</p> <p>Gizarte Zerbitzuetatik diru laguntza jasotzen dutenei jarraipena egiten zaie eta hitzarmen bat sinarazten zaie konpromiso batzuk hartzeko: duten formazioa hobetzeko, hezkuntza ikastaroak egiteko, lan orientazio zerbitzura joateko...</p> <p>Gizarteratze Zerbitzua egon da 2013ra arte.</p> <p>2013ko irailetik aurrera Lan Orientazio Zerbitzua eskaintzen da hamabostean behin.</p> <p>Hainbat ikastaro antolatu dira: TPC</p>	<p>Aurten aurreikusten direnak: Kirol</p>	

<p>Diru laguntzak jasotzen dituztenentzat ikastaroak antolatu</p> <p>Langabetuen asanblada sortu eta udalarekin harremana izan.</p> <p>Beharra dutenei udalak erabiltzen ez dituen ondasunak utzi.</p>	<p>ikastaroa, Elikagai Manipulatuak txartela lortzeko ikastaroa (2 aldiz) , Etxeko Brikolajea.</p>	<p>instalazioen mantenimendua eta herrilanak.(2014)</p>	<p>Langabetuen asanblada ez da gauzatu.</p> <p>Ez da horrelako eskaerarik jaso.</p>
<p>BOLUNTARIOTZA, ELKARTASUNA...</p> <p>Boluntariotza sustatu</p> <p>Truke poltsa sortu (denboraren bankua)</p> <p>Balore positiboak sustatzeko beharra</p> <p>Guraso inplikatuekin aisialdirako taldea sortu</p>	<p>Gobernuz kanpoko erakundeei eta elkarteei diru laguntza ematen die urtero udalak. GAO-n publikatzen dira oinarriak.</p> <p>Udaleko Prebentzio Zerbitzuak sustaturik gaia lantzen da eskoletan, beste gai batzuk ere tartean direla.</p> <p>Gazteria saila arduratzen da gai horretaz, eta guraso elkarguneko saioak antolatu dituzte.</p>	<p>Euskadi Lagunkoia proiektuan azaltzen da martxan jartzeko aukera bezala.</p>	<p>Orain arte ez da lehentasunezkoztat eman truke poltsa sortzea.</p>
<p>JUBILATUENTZAKO ORTUAK</p> <p>Jubilatuentzat ortuak mantendu</p>	<p>Eskaerak udalean jaso eta onartzen dira. 28 ortu daude horretarako.</p>		